

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1042

IRAGARKIA, 2021eko otsailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arabako lurralde-ordezkararena, zeinaren bitartez jendaurrean jartzen baita «Villarreal-Landa Cto.1» BTA 13,2 kV-ko tentsio ertaineko aireko linea aldatzeko Proiektua, «Gallastegi Baserria» KTZra (Goianen) bideratua, Legutioko udal-mugartean (Araba).

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) ezarritakoaren ondorioetarako, testu beraren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen dira eskatzaileak desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen banakako zerrenda zehatza eta jarduketa hau:

- Eskatzailea: I-DE Redes Electricas Inteligentes, S.A.U. Helbidea: Urartea kalea 2 (Vitoria-Gasteiz).

- Eskatzen direnak: administrazio-baimena, exekuzio-proiektua onartzea eta onura publikoaren deklarazioa.

- Helburua: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.

- Erreferentzia: 01ATY 202000057.

13,2 kV-ko tentsio ertaineko aireko linea hau aldatzea: «Villarreal-Landa Cto.1» BTA, «Gallastegi Baserria» KTZra bideratua.

- Linearen ibiltartea: Legutioko (Araba) udal-mugartea.

- Proiektu honek eragindako ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.

- Aurrekontua: 10.850,02 euro.

Eta guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau, eta, batez ere, proiektuak eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainerako titularrak jakitun egon daitezen (jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran dago jasota), hain justu ere proiektua aztertzei aukera izan dezaten Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Gasteizko Samaniego kaleko 2an), dagokion udalean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioari buruzko apartatua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta aipatutako tokietan egokitzen jotzen diren alegazioen bina ale aurkezteko, hogen eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 5a.

Arabako lurralde-ordezkaria,
JESÚS PASCUAL LORENTE.

ERANSKINA

ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

13.2 KV-KO «VILLARREAL-LANDA CTO.1» BTA TENTSIO ERTAINEKO AIREKO LINEA ALDATZEA;
LEGUTIOKO UDAL-MUGARTEKO (ARABA) GOIANGO «GALLASTEGI BASERRIA» KTZRA BIDERATZEA

Udalerria	Zk.	Jabearen datuak	Datu katastralak			Afekzioak					
		Jabea	Poligonoa	Partzela	Laborantza	Euskarri zk.	Euskarri azalera (m ²)	Heg. (m)	Aireko zortasunaren azalera	Zuhaiztien segurtasuneko zortasuna (m ²)	Aldi baterako okupazioa
Legutio	1	Sprilur, S.A. (% 9,70)	5	577	HIRIKOA	16 Dagoena	Gaurkoa	101	404	332	100
		Arabako Foru Aldundia (% 20,30)				17 (ordezkatzeko)	2,00				
		GSDN (% 49,60)									
		Bizkaiko Foru Aldundia (% 20,40)				1007 Dagoena	Gaurkoa				